



LABen HAUSNARKETA

Orain aurkezten dizuegun txostena egin ahal izateko, LAB, Haur Eskolak Partzuergoko ikastetxetan informazio eske ibili zen aste santua baino lehenagoko asteetan. Jasotako informazioak langileen lan baldintzen egoera eta ikastetxe horietan eskaintzen den zerbitzua nolakoak diren adierazten du, zerbitzua abian jarri zenetik LABek zituen usteak baieztatuz.

Langileei dagokienez jasotako informazioa

Langileen kopurua:

Arabán	11	Jardunaldi osokoak	9	murriztua	2
Gipuzkoan	22	Jardunaldi osokoak	11	murriztua	5 – beste bik 5 eta 5½
Bizkaian	43	Jardunaldi osokoak	39	murriztua	3 – beste batek 5½

Jardunaldia 7½ edo 8 ordukoa bada oporraldi ezberdina dagokie.

Gizarte Segurantzza (Lanean hasitako eguna ez dator bat Gizarte Segurantzako alta egunarekin)

Gipuzkoan: 4 kasu

Bizkaian: 4 kasu.

Lan baldintzak:

- Hiru herrialdeetan **bai atsedenaldirako bai bazkaltzeko denborarik ez da ordutegiaren barruan kontuan hartzen**. Beti umeen siesta garaiaren arabera egiten delarik.
- Bizkaian, hainbat kasutan, langilea kokatuta dagoen eskolatik at beste eskoletan ordezkapenak egitera behartzen dute.
- Ordutegi barruan **ez da kontutan hartzen ez langileen arteko koordinazioa, ezta gurasoen informazio emateko denborarik ere**.
- Egutegian **ez da Hezkuntza Proiekturako denborarik finkatzen**.
- **Prestakuntza ordutegiz kanpo** egiten da, hilabete behin (larunbatetan).

Zerbitzuari dagokionez jasotako informazioa

Gelen baldintzak:

Hiru lurraldeetan maila berdineko egoera kezagarria ematen da: psikomotrizitaterako gelarik ez, 10 kasutan garbiketa txokorik ez, Gipuzkoan 3 eta Bizkaian 5 kasutan lo egiteko txoko egokirik ez, berogailurik ez hainbat lekutan, leku guztietan entxufeak hormaren beheko aldean jarrita, hainbat lekutan gela barruan komunik ez, harrikoa egiteko tresnarik ez, edo dagoena oso eskasa.

Eskolaren baldintzak:

- **Jolastoki egokirik ez** (4 Bizkaia, 6 Gipuzkoa, 3 Araban) neurri handi batean. Sarbide ez egokia: Gipuzkoan 4, Araban 5 ikastetxetatik 4tan, Bizkaian 4.
- **Gelak**: Larrabetzun, Muxikan, Etxebarrin, Mundakan, gela kopurua ez da nahikoa dagoen haur kopururako.
- **Material didaktiko hezitzailea**: Araban ikastetxe bakar batean ere ez, Gipuzkoan neurri handi batean ezta ere eta Bizkaian gehiengoan ere falta dute.
- **Altzariak ere urriak** dira hainbat lekutan (seaskak, garbiketarako mahaiak, ontzigarbigailu).
- **Eskola asko dira behin behineko kokapena** dutenak, eskola publikoetako egoitzetan edota herriko beste egoitzetan.
- **Eraikinak**, kopuru handian (8 eraikin) baldintza ez egokiak dituzte, 8 hauetatik egoera larrienak dituztenak, Beizama eta Mundaka.



ONDORIOAK

1.- **Langileen lan baldintzak ez dira egokiak**, gehienbat langile gutxi dituzten haur eskoletan lanean ari direnenak (atsedenik ez, bazkaltzeko denborarik ez, beste haur eskoletan ordezkapenak egitera behartuta,...). Gizarte Segurantzaren alta beranduago duten langileen kasuan LABek Partzuergoari hau zuzentzea eskatzearekin batera, eragindako langileei erreklamazioa egiteko ereduak eskaini egiten die.

2.- **Ordutegi barruan** langileen arteko **koordinazioarako denborarik ez, Prestakuntzarik ez, gurasoei informazioa emateko ere ez**. Edo koordinazioa, prestakuntza eta gurasoekiko informazioa ez da garrantzitsua, edo garrantzitsua bada, **langileen kontura izan dadila**.

4.- **Inork zalantzarik bazuen** zerbitzua asistentziala/hezgarriaren artean (koordinazioa, gurasoak, prestakuntza) egutegian Hezkuntza proiekturako denborarik ez badago, garbi gelditzen **da zerbitzuaren ezaugarri nagusia, asistentziala**, nahiz eta langileek garbi eduki zerbitzua nagusiki hezgarria izan behar duela, eta horretarako neurriak hartu behar direla.

5.- **Zerbitzua martxan jartzerakoan inprobisazioa izan da nagusi, eta langileen lan baldintzak kontuan hartu izan ez badira, haurrak ere ez**, hainbat eraikin baldintza onetan ez direlako, eraikinek hutsune ugari dituztelako, garbiketa txokorik ez, psikomotrizitate gelarik ez, berogailuaren falta, entxufeak haurren eskura, materialak didaktikoaren falta, ..

6.- Haurren gurasoek ordaintzen duten diru kopuruarengatik (gehienek kuota altuena) ondorioztatzen da **haurrek ematen duten ordu kopurua oso altua dela**.

Hau guztia kontuan harturik, **dagoeneko LABek Haur Eskolak Partzuergoko zuzendaritzarekin bilera eskatu egin du langileen lan baldintzetaz, zerbitzuaz zein eraikinetaz hitz egiteko, ahalik eta lasterren dagoen egoera hobetzeko**.

OHARRA

Bereziki dagoeneko Hezkuntza Saileko zerrendetan izena emana duzuenentzat:

Aurreko astetan Hezkuntza Saileko ordezkoren arautegiaren berriztapena negoziatzen aritu izan gara, eta Hezkuntza Saileko ez diren ikastetxetan 0-3 zikloan ematen diren zerbitzuak hemendik aurrera kontagarriak izango dira, ikasturteko 0`5 puntu hain zuzen, pribatuan eta ikastoletan ematen diren zerbitzuak bezala. Negoziazioaren zehar LABek Udala eta Partzuergoko zerbitzuak publikotzat hartzea (ikasturteko 6 puntu) defendatu izan du, Administrazioaren aurkako jarrerak beste sindikatuen indiferentzia lagun izan duelarik.

Bestalde, Hezkuntza Saileko zerrendetan zaudetenok gogoratu aurki zuen fitxa pertsonala jasoko duzue, eta 2003ko maiatzaren 16tik 2004ko maiatzaren 16 bitartean metatuko zerbitzuak kreditatzeko eta bestelako informazioa gehitzeko edo aldatzeko epea zabalduko zaizuela.

ADI EGON! BILERA DEIALDIAK

Maiatzak 19 asteazkenarekin arratsaldeko 18:30tan hiriburuetako egoitzetan batzar irekiak egingo dira zuekin guzti honetaz hitzegiteko. Egoitzetako helbideak beheko taulan aurki ditzakezue.

Araban

Bueno Monreal, 10 Behea
01001 Gasteiz
Telf.: 945 259 544
Faxa.: 945 258 039
Irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org

Bizkaian

Rekalde zumarkalea,62
48010 Bilbo
Telf.: 944 706 900
Faxa.: 944 706 909
Irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org

Gipuzkoan

San Bladi 1, behea
20011 Donostia
Telf.: 943 458 562
Faxa.: 943 472 709
Irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org

Nafarroan

M. Zelaieta 75-2A atea
31014 Iruñea
Telf.: 948 382 474
Faxa.: 948 221 276
Irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org

Iparaldean

13 Marengo Karrika
64100 Baiona
Telf.: 0559595020
Faxa.: 0559595021
baiona@labsindikatu.org